


horrelakoak
dira
inchausti
mobiliario-ren
egongelak



estilo
guztietakoak,
prezio
guztietakoak

markarik
onenak:
arruti, pianca,
forestier,
valenti, kron,...



bitrina
kurboekin,
modularrekin,
sabaian egokitu
daitezkeenekin...

konponbide
zehatzak
arazo
zehatzetarako:
bandexa ateragarriak,
gurdi mugikorak...



interesik gabeko
finantzaketa
24 hilabete

ezagutu
Gipuzkoako
altzari
aukera handiena
eta eguneratuena



MOBILIARIO
INCHAUSTI

N-1 errep., Errekalde. LASARTE-ORIA
Ternuako Arrantzaleen kalea, 2. AMARA (ARCCOren ondoan)



ALBERTO ZERAIN (Mendizale arabarra)

IGOERAREN ZAILTASUNA

«Ez geunden guztiz
aklimatatuta, eta haizea eta
hotza oztupo gogorrek izan dira»

GAILURREKO POZA

«Egiten duen hotza ere ez duzu
sentitzen gailurrera iristeak
dakarren zoriontasunarekin»

LHOTSE. Mendizale arabarrak hirugarren zortzi milakoa igo du



Lhotseko tontor aldea, hego paretatik ateratako argazkian. Ezkerrekoa da tontor nagusia.

Alberto Zerain Lhotsera igo da, Oscar Cadiacheekin

Jose Maria Oñate kideak 8.200 metrora hartu zuen itzuliko bidea

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal mendizaletasunaren-tzat egun handia izan zen atzo-koa. Munduko gailur garaiena bost euskal mendizalek zapaldu zuten. Baina, Everestetik ez ezik, Lhotsetik ere berri onak iritsi ziren. Eguraldia lagun izan ez arren, *Al Filo de lo Imposible* espedizioa bi kidek, Alberto Zerain gasteiztarra eta Oscar Cadiach kataluniarrak, Lhotse igo zuten (8.516 m.). Cadiach iritsi zen aurrena gailurrera, Nepalgo goizeko hamaiketan —07:00ak Euskal Herrian—, eta ordubete geroago heldu zen Zerain. Espedizioa beste bi kideek, Jose Maria Oñate *Habitxuelas* arabarrak eta Eloy Collado kataluniarrak, 8.200 metroak arteko bidea egin zuten; baina, eguraldi kaskarra zela medio, atzera egitea erabaki zuten. Beherakoan, bi arabarrak bigarren kanpamendura jaitsi ziren (6.300); bi kataluniarrak, aldiz, aurreneko kanpamendura.

Igoera baldintza gogorretan egin zuten *Al filo de lo imposible*-

ERDIKO LHOTSE

Eguraldia eta nekea zirela medio egin zuten atzera

Erdiko Lhotse (8.414) da zortzi mila metrotik gora zapaldu gabe dagoen tontor bakarra —hamalau tontor nagusietatik aparte badira beste batzuk—. Lhotseko tontor nagusia igo eta, ondoren, kilometroko zeharkaldia dago, ertz zorrotz eta arriskutsuari jarraiki. Hori egitea zen *Al filo de lo imposible*-koen erronka; baina, eguraldiak eta igoeran pilatutako nekeak eraginda, ertzari ez ekitea erabaki zuten. Lhotse igo dute eta ez da erronka makala.

ko espediziokideek, haize boladak eta hotza nagusi zirela: «Ez geunden guztiz aklimatatuta eta, hotz handia egiteaz gain, haizeak gogotik jotzen zuten. Horrek eraginda, bi taldekidek

atzera egitea erabaki dute 8.200 metro ingurura dagoen korridorean», jakinarazi zuen Zerainek.

Gasteiztarrarentzat hirugarren zortzi milakoa izan da Lhotse. 1993an Everest igo zuen (8.848) eta bi urte geroago Makalu (8.463). Iaz, Oscar Cadiacheekin eta beste mendizale batzuekin batera, Everest oxigenorik gabe igotzen ahalegindu zen. Baina ordukoan amore eman behar izan zuten.

Lhotseko tontorra igo aurretik, *Al filo de lo imposible*-ko espediziokideak Ama Dablam igotzetik zetozen. Alberto Zerainek behatz batean lesio txiki bat izan zuen eta geroago batu zitzaizen beste hiru espediziokideei. Bi igoeretako irudiekin telebistarako erreportajeak egingo dituzte. Lhotseren kasuan zailtasunak izan zituzten gailurreko irudiak grabatzeko. «Tontorrean izan dugun zailtasun handiena ekipoaren tenperatura bero mantentzea izan da. Hotz handia egiten zuen eta irudiak hartzea zaildu digu», esan zuen Zerainek.